

Ze barri

Mallabiko Udal Aldizkaria

3 zeb. 2008ko UZTAILA



Euskaraz jaio, hazi eta bizi

Aurkibidea

Sarrera	3
Euskaraz bizi ahal izateko aurrera pausoak <i>Para que sea posible vivir en euskara en Mallabia</i>	4
Areitio gaineko baselizaren inguruak berreskuratu nahiean <i>Queremos recuperar los alrededores de la ermita de Areitio</i>	6
Udal titularitateko bideen aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzen aldaketa <i>Cambio en las ordenanzas que regulan el aprovechamiento de los caminos municipales</i>	8
Energia berriztagarriak <i>Apuesta por las energías renovables</i>	9
Laburbilduta, hainbat barri <i>Noticias breves</i>	10
Zer gertatzen da mallabiko frontoian <i>¿Que ocurre con el frontón municipal?</i>	12

Sarrera

Pasa da urtebete azken udal taldea osatu zenetik. Epe laburrean lanaren emaitzak, frituak agerian utzi dituzan, baina aldaketa nahi izan zan eta hori igarriko zan. Alde batetik Udalak zituen asmoetaz herria informatuta egotea nahi genuen horren inguruan hemen daukaguz udal aldizkariaren hirugarren alea eta Web orria ere jada martxan dago, bestetik partehartzea sendotu nahi genuen. Honen inguruan, kultur etxean ari da lanean talde ireki bat, hainbat udal pleno egin izan dira arratsaldez eta guztiak dira irekiak, herritarrei horrela nahi izan ezkerok aukera eman diegu parte hartzeko eta iritziak emoteko, hainbat asanblada egin dira,... Aberatsagoa izan daiteke parte hartzea baina ez da izango aukerarik ematen ez dalako, aukerak aprobetxatzen ez ditugulako baino.

Hainbat proiektu martxan daude edo habian jarriko dira denbora epe laburrean adibidez Goitondo ekosistema industrial batetan bihurtzeko proiektua, baserrietan energi berriztagarriak erabiltzeko aukera, BTT pistarena, Areitio gainean egiteko asmoa dagoen atsedeen-lekua, kaskoa urbanizatzearena, eskoletakoa... Administrazioaren pausoak geldiro doaz, pentsa eta burutzen hasten diren arteko epea larregi luzatzen da eta gehienori gauzak arinago egitea gustatzen zaigu.

Lanerako gogoarekin etorri ginen eta jarraitzen dugu, jakitun gara herritar bakoitzak nahi duen guztia ezin dala egin baina aurten ere makina bat eskakizun herri-rik irten direnak jarri dira eta jarriko dira martxan. Horretan ari gara eta horregaitik herriaren partehartzea oinarritzko baldintza da nahi duzuen proiektu hori aurrera ateratzeko. Gu prest gaude entzuteko, eztabaidatzeko eta ahal bada aurrera ateratzeko formularik egokienak bilatzeko. Herria guztiona da eta bertan guztiok gustora bizi gaitezen eremuan bihurtu behar dugu. Gazte eta zahar, emakume ta gizon, guztiok eta guztion artean eraiki behar dugu Mallabia.

***Y**a ha pasado un año desde que se formó la nueva corporación. Tiempo corto para que de verdad se vean los frutos del trabajo realizado pero suficiente para para que la ciudadanía se de cuenta de la voluntad de la nueva corporación.*

Para empezar como principales objetivos nos marcamos el de informar sobre los proyectos que se estaban realizando y se van a realizar, y el de la participación ciudadana. Este es el número tres de la revista municipal que creamos para poder informar, además ya está también en marcha la Web del Ayuntamiento.

Con respecto al segundo objetivo sigue en marcha la comisión de participación en la casa de cultura, muchos de los plenos este año han sido por las tardes y todos han sido abiertos. En ellos se da la posibilidad de tomar parte a la ciudadanía, de expresar sus dudas e inquietudes además de aportar sus ideas.

Así, ya están en marcha y se pondrán en marcha algunos proyectos: creación de un ecosistema industrial sostenible en Goitondo, el proyecto de creación de energía renovable en caseríos, las pistas de BTT, el proyecto de reavilitación de Areitio, urbanización del casco, escuelas,... Somos conscientes de que en la administración las cosas se hacen despacio, mucho más despacio de lo que quisieramos y es por eso que nos cuesta ver los frutos de los pasos que vamos dando y las decisiones que adoptamos.

Vinimos con ganas de trabajar y seguimos con la misma voluntad. Somos conscientes de que no podemos llegar a cubrir las necesidades de cada uno/a de las personas que formamos el municipio pero muchas de las cosas que estamos haciendo han salido de vosotros. Por eso es importante la participación para poder conseguir nuestro objetivo: crear un Mallabia donde ancianos y jóvenes, mujeres y hombres puedan estar, vivir, disfrutar agusto.

EUSKARAZ bizi ahal izateko aurrera pausoak

Azken hiruhilabete honetan gure Mallabian euskaraz bizi ahal izateko hartu izan diran erabakiak oso garrantzitsuak izan dira.

Apirilean aho batez, jendez gainezka egoan pleno areto baten, Mallabia UEMAko partaide izatea onartu zan. Ondoren, Euskararen Udal Orde-

nantzak prestatzen hasi ginen; borradorea idatzi, herriko kultur eta kirol talde ezberdinekin asanblada irekian aurkeztu, eta zuzenketa batzuk egin eta gero, Udaleko Kultur Batzordean azertu ziran barriro. Ekainaren hasierako Udal Batzar Berezian onartu ziran aho batez honeek be.

EUSKARAREN ORDENANTZAK

Mallabia herri euskalduna da, gutariko gehienok euskara erabiltzen dogu era naturalean, bai etxean, bai lagunen artean, normaltasun osoz. Hau holan izanda, batenbatek galdetuko deutso bere buruari zertarako balio izango ete daben euskararen ordenantza batzuk Mallabia moduko herri euskaldun baten.

Ordenantza honekin araudi bat ezarri nahi dogu gure udalerrian, euskaraz bizi nahi dabenak euskaraz bizi ahal izango dabela ziurtatuko daben araudi bat.

Ordenantza honekin euskaldunen hizkuntz eskubideak babestu nahi ditugu.

Ordenantza honekin mallabitar baten hizkuntz eskubideak urratuak diranean Mallabitik kanpo euskara ofiziala den lurraldean, lagundu egingo jako salaketa bideratzen, salatu nahi badau behintzat.

Ordenantza honekin gure Udalak euskaraz funtzionatuko dabela ziurtatzen da.

Ordenantza honekin gure herriko denda, taberna, jatetxe, lantegi, kirol talde ezberdinei lagundu egingo jakue euren eginbeharrak euskaraz burutu dagiezan. Konbidatuko jakue apurka-apurka, euskaratu dagiezan jende aurrean dituen kartelak, euskaraz izan daitezen bezero mallabitar euskaldunekin dituen hartu-emonak.

Ordenantza honekin Euskara Batzorde bat antolatzen da; Batzorde honek euskara plangintza bat osatuko dau eta plangintza hau bete daiten beharrezkoak diran pausoak antolatu eta erabakiko ditu.

Ikus daikezuenez, euskararen ordenantzak garrantzia daukie. Bizkaiko Aldizkari Ofizialean hilabete baten zehar egongo dira jarrita edonork ikus dagizan eta inork ez badau alegazinerik jartzen uztailean bertan aplikatzen hasi geinkez.

Araudi honekin ez dogu inor derrigortzen euskaraz berba egitera edo euskaraz bizi izatera. Hori bakoitzaren erabakia da, erabaki pertsonala. Araudi honekin Udalak ziurtatu nahi dau Udalak eta bere menpe dauden herriko beste erakundeak euskaraz funtzionatuko dabiela eta ziurtatu dagiala mallabitarren euskaraz bizi izateko gogoia. Orain mallabitarren esku dago erabiltzea.



ZERGAITIK SARTU GARA UEMAN

Gure helburua, Mallabia herri euskalduna izanik, euskara arlo sozial guztietara zabaltzea izan da, euskarak egoera normalizatua irabazi dagiala gure herrian. Hau lortzeko UEMArekin (Udalerri Euskaldunen Mankomunitatearekin) jarri ginen hartu-emonetan lehendik be haren lana ezagutzen genduelako eta haren helburuekin bat egiten genduelako:

- Udalerri euskaldunetan herritarrek egiten daben biziara sozial guztia, publikoa zein pribatua euskaraz izan daiten bideak urratzea.

- Udalerri euskaldun guztiek bat eginik, euskara nagusi izango dan lur-gunea osatzea.

- Udalerri euskaldunen garapen sozio-ekonomikoa eta sozio-kulturala bultzatzea.

Holan, bada, une honetan 54 udal euskaldun bat eginik, euskaldun lur-gunea indarberrituz euskal hitzunen eskubideen alde errezago eta indar gehiagorekin jardungo gara; era eraginkorragoan babestu daikeguz eskubide honeek eta ahalmen gehiago eukiko dogu. UEMAko teknikariek lagunduko deuskue Euskararen Plana egiten, aurrera eroaten. Euren esperientzia, 16 urtetako esperientzia, gure esku egongo da, holan bidea errezagoa egingo jaku. UEMAren barruan jardungo dogu beharrean, baina baita be, eukiko dugu Kontseiluaren laguntza eta Eusko Jaurlaritzak eskeni leikena be kontuan hartzekoa izango da. Ea denon artean, denok elkarrekin lortzen dogun Mallabiko esparru guztietan euskaraz bizi ahal izatea.

Baina, garrantzitsuena, lehen esan dodan moduan, mallabitar bakoitzaren ezpainenetan dago, zein hizkuntzatan bizi nahi duen norberak aukeratzen dau. Xabier Amurizak bere bertso baten dinoena ea geureganatu eta barneratzen dogun behingoz:

Maita, maita, maita nazazu gutxiago. Goza, goza, goza nazazu gehiago

Para que sea posible vivir en **EUSKARA** en Mallabia

Durante este segundo trimestre el Ayuntamiento ha acordado por unanimidad que nuestro municipio entre a formar parte de la Mancomunidad de Municipios Euskaldunes y ha aprobado las Ordenanzas del Euskara. Estas son decisiones que en adelante marcarán el día a día en nuestro pueblo y posibilitarán que el que quiera vivir en euskara pueda hacerlo en Mallabia.

LAS ORDENANZAS DEL EUSKARA

Mallabia es un pueblo euskaldun, el 93% de sus habitantes lo conoce y una parte muy importante de su población lo utiliza con frecuencia en su vida diaria. Es por esto por lo que la corporación ha decidido confeccionar, aprobar y poner en marcha dichas ordenanzas.

Con estas ordenanzas se pretende garantizar el derecho de vivir en euskara a todos aquellos que así lo quieran.

Con estas ordenanzas se quiere proteger los derechos lingüísticos de los vascoparlantes.

Con estas ordenanzas se ayudará, si es que quieren denunciarlo, a aquellos que se sientan discriminados por su condición vascoparlante en cualquier lugar donde sean oficiales el euskera y español y no son atendidos debidamente.

Se garantiza el funcionamiento del Ayuntamiento en euskara.

Se invitará a los grupos cultura-

les, deportivos, bares, restaurantes, tiendas, empresas del municipio a que poco a poco vayan euskaldunizando tanto su servicio como los carteles y anuncios.

Se creará la Comisión de Euskara que diseñará y pondrá en marcha un plan para que se cumpla lo acordado en estas ordenanzas y haga un seguimiento de las mismas aportando medios y soluciones a los problemas que surjan.



Con estas ordenanzas se pretende garantizar el derecho de vivir en euskara a todos aquellos que así lo quieran.

SOMOS PARTE DE UEMA

El objetivo que se pretende al tomar parte nuestro pueblo en UEMA es que el euskara se pueda extender con naturalidad a todos los ámbitos sociales del municipio, que el euskara consiga la normalización que se merece por ser el idioma mayoritario de esta localidad.

Formamos parte de UEMA porque compartimos sus objetivos:

- Abrir caminos para que la vida social y pública de los habitantes vascoparlantes pueda desarrollarse en euskara.

- Uniéndonos a otros municipios euskaldunes (somos 54 municipios los que formamos la mancomunidad en este momento) formar un territorio donde el euskara sea el idioma predominante. Esta es una condición fundamental para la supervivencia de cualquier idioma.

- Impulsar el desarrollo socioeconómico y sociocultural de los municipios vascoparlantes.

UEMA nos aportará personal que nos oriente y ayude a desarrollar este proyecto además de su experiencia de 16 años. Con sus técnicos confeccionaremos un plan de normalización que empezando por el Ayuntamiento se extendiera al municipio y cuyos objetivos ya se han mencionado anteriormente.

Areitio gaineko baselizaren inguruak berreskuratu nahiean

Danok dakigu Mallabiko populazioa nekazal-auzo ezbardinetan sakabanatuta dagoela. Nonbaiten auzoek garrantzia badaukie hori Mallabian da. Auzo gehienak baseliza baten inguruan elkartzen dira, han ospatzen ditue euren jaiak eta auzo bakoitzeko baseliza hori auzotarren bizi sozialaren ernamuina izaten da sarri.

Areitiok be badau bere baseliza, “Andra Mari Esperantzakoa”, baseliza honen inguruan ospatzen dira Mallabiko auzoetako jai garrantzitsuenetarikoak, ezagunak dira bertako herri-kiroletako jardunak, asto-probak eta bertan aurkitu geinken giroa berezia (espeziala) da, mallabitarrak eta inguruetaoak bertara hurbiltzen dituen.

“Nonbaiten auzoek garrantzia badaukie hori Mallabian da”

Orain dala 13 urte Udala osatzen ebenek Avar-Eztandari behin-behineko baimena emon eutsien baseliza horren inguruko lurak erabili egiezan, radiokontroluz gidatutako autoen pista bat irekitzeko. Handik hona, gradak eraiki, lurak egokitu auto lasterketak egiteko eta bertan burutu dira hainbat entrenamendu eta txapelketa be. Urteak pasa ahala Areitioko bizilagunek ikusi dabe zelan herritik kanpoko elkarte hori euren gozamenerako eukiezan lurretan jaun eta jabe egiten zan, baimena eskatu behar eben bertan euren auzoko jaia ospatzeko be, eta gainera inoiz arazo bat edo beste egon izan da elkarte horren eta auzotarren artean.



NOLA BIDERATU NAHI IZAN DUGU ARAZOA

Avar-Eztandakoek arazo batekin aurkitzen dira lur horreetan eta honako hau da: lur horreek Mallabiko udal ordenamenduan lur ezurbanizagarriak dirala eta elkarte honek burutzen daben moduko ekintza bat, 2006ko Lur Legearen arabera, ezin dala onartu bertan.

Aspaldian hainbat herritar kejaratu da Mallabian ez dagoelako atsedeen lekuri Trabakua gainekoa kenduta, ezta pasialekuri be. Holan, ba, keja honek jasota eta aztertuta, pentsatu dogu komenigarria izango zala herritik Areitio gainera doan bide zaharra bereskuratzea eta baselizaren inguruko lurretan atsedeen leku bat sortzea. Areitioko auzotarren eskaria daukagu horixe bera proposatuz eta Udalak bere egin dau asmo hori

EKAINEN UDALBATZAN HARTU ZAN ERABAKIA

Ekainaren hiruan Udal Plenoan elkartuta honako erabakia hartu genduan aho batez.

- 1995eko martxoan emandako behin-behineko prekarioan erabilerarako baimena kentzea Avar-Eztandari, kalte ordainik barik.

- Jarduera berehala eteteko eta bertako instalakuntzak desmontatzeko agindua emotea, honetarako hilabeteko epea emonez.

- Honako ebazpena jakinaraztea lurren jabeari eta Avar-Eztanda Elkarteari, errekurtsioak eskainiz.

Erabakia garrantzitsua da herritarren eta auzotarren nahia bete daiten. Badakigu kaltetuak ere badagozela, baina jakin behar dabe prekarioan emandako baimen bat ezin dala betirako luzatu. Gainera, Udalak bere herritarren interes eta ongizateari begiratu behar deustie eta honek herritik kanpoko elkarte pribatu baten interesen gainetik dagoz.

Ea asmatzen dogun eta datorren urtean posible dan Areitioko gain horretan danok gozatzeko moduko atsedeen-leku atsegin bat sortzea.

Queremos recuperar los alrededores de la ermita de Areitio

Es sabido por todos que gran parte de la población de Mallabia está diseminada en distintos núcleos rurales. El centro de estos núcleos rurales por lo general es la ermita del barrio, a su alrededor se realizan las fiestas y junto a ellas se centra la vida social del barrio.

Areitio también tiene su ermita, Nuestra Señora de la Esperanza, y a su alrededor se celebra una de las fiestas más importantes de Mallabia. De sobra son conocidas las demostraciones de deporte rural y las pruebas de burros que allí se realizan. Allí también se juntan gentes de distintos puntos de Mallabia y de pueblos de alrededor atraídos por el cariño y la simpatía que despierta la población del barrio.

“los habitantes de Areitio han visto cómo una organización ajena al municipio se ha ido haciendo dueña de dicho terreno”

Hace ya más de trece años que se acordó en pleno municipal conceder una licencia en precario a la asociación Avar-Eztanda para que pudiera utilizar el llano que hay junto a la ermita y poder abrir en el mismo un circuito para vehículos conducidos por radiocontrol. Desde entonces acondicionaron el llano para construir la pista, han levantado gradas, distintas personas entrenan en esa pista e incluso se han desarrollado en ella algunas competiciones. Según pasaban los años los habitantes de Areitio han visto cómo una organización ajena al municipio se ha ido haciendo dueña de dicho terreno en detrimento de las funciones a las que dedicaba el propio barrio dichos terrenos. Incluso en alguna ocasión



ha habido algunos roces entre los socios de la asociación y vecinos del barrio.

CÓMO HEMOS CANALIZADO EL TEMA

El suelo donde está instalada la pista de coches es un suelo no urbanizable y dicha actividad no puede desarrollarse en dicho lugar. Muchos conciudadanos, además, se quejan porque en Mallabia no hay zonas de esparcimiento aparte de Trabakua y ninguna zona de paseo. Hemos pensado que sería conveniente recuperar la zona de los alrededores de la ermita como zona de descanso y rehabilitar el viejo camino que une el alto de Areitio con el casco para crear un paseo. Así nos lo hicieron saber los habitantes de Areitio y hemos hecho nuestra su propuesta.

EL PLENO DE JUNIO

A principios de junio reunidos en pleno la corporación por unanimidad tomó el siguiente acuerdo:

- Retirar la concesión de licencia en precario dada a la sociedad Avar-Eztanda concedida en marzo de 1995 sin derecho a daños y perjuicios.

- Que cesen de inmediato la actividad en dicha zona y se les da el plazo de un mes para que desmonten las instalaciones que allí han colocado.

- Hacer saber la decisión adoptada tanto al propietario de los terrenos como a la asociación Avar-Eztanda, con derecho a recurso.

Es importante la decisión adoptada para que puedan realizarse los deseos de la población de Mallabia. Sabemos y sentimos mucho que tras esta decisión salga perjudicada dicha asociación pero una licencia en precario no puede ser duradera sin límite de tiempo y los intereses del pueblo de Mallabia son bien distintos de los que persigue esta asociación. Nosotros como Ayuntamiento tenemos que anteponer los intereses de nuestra ciudadanía por encima de los de una entidad privada y además extraña a la mayoría de nuestro pueblo.

Aver si acertamos con la decisión adoptada y pronto podemos disfrutar y gozar de una zona de descanso en el alto de Areitio.

Udal titularitateko bideen aprobetxamendu berezia arautzen duen ordenantzen aldaketa

Pinuak atera behar diranean fidantza bat eta tasa batzuk ordaindu behar dira. Udalean hainbat keja jaso izan dira azken hilabeteetan hau dala eta (pentsatzen dogu lehenago be kejak jasoko zirala, ordenantza honeek 2003koak ziralako). Holan, ba, inguruko herrietako udalekin jarri gara hartu-emonetan (Zaldibar, Elorrixo, Otxandio, Atxondo, Markina, Bolibar,...) eta ikusita kejak bere arrazoia baeukela, pentsatu dogu komenigarria izango zala gure udaleko ordenantzetan aldaketa batzuk egitea. Ordenantza honeen 3 eta 5 garren artikulok aldatu ditugu.

3 garren artikulok zinoen metro kubiko egur bakoitzeko edo garraiatzen dan beste material tona bakoitzeko euro bat ordaindu behar zala. Aldatu ondoren holan

geratzen da: **“garraiatzen dan metro kubiko edo beste material baten tona bakoitzeko 0,50€ ordainduko da, diru hori bideak konpontzeko fondorako erabiliko da”.**

5 garren artikulok zinoen:” Lizenzia eskatzen dabenak, bideak erabili aurretik fidantza bat utzi beharko dau udalean bidea erabiltzean sortu leikezan kalteen aurrean erantzuteko. Hau 100 metro kubiko egur edo 100 tonatik aurrea eskatuko da...”

Kontuan hartuta bidea berdin hondatu leikela egur edo material asko zein gitxi garraiatzen dabenak holan geratuko dala adostu dugu.: **“Lizenzia eskatzen dabenak, bideak erabili aurretik, fidantza bat itzi beharko dau udalean bidea erabiltzean sortu leikezan kalteen**

aurrean erantzuteko...”

Hau da, fidantza, egur asko atera edo gutxi atera, denak ordainduko dabe, eta kalterik sortzen ez bada bidean, ordaindutako fidantza itzuli egingo da. Baina ateratzen den tona bakoitzeko edo egur metro kubiko bakoitzeko ordainduko den tasa erdira jaisten da. Berri ona, beraz, honako hau, pinuak atera behar dituzten baserritarrentzat, adibidez.

Erabakia ekainaren 3 ko udal plenoan onartu zan eta orain Bizkaiko Aldizkari Ofizialean egon beharko dau hilabete baten eta erreklamaziorik aurkezten ez bada epe hone-tan behin betikotzat hartua izango da. Beraz, uztailearen erdialdean martxan izango dira proposatu ziran aldaketa honeek.

Cambio en las ordenanzas que regulan el aprovechamiento de los caminos municipales

Cada vez que sacamos un pinar tenemos que pagar una fianza y unas tasas. En los últimos meses se han recogido una serie de proposiciones con respecto sobre todo a las tasas (supongo que siendo estas ordenanzas del 2003 antes también se habrían realizado proposiciones). Siendo así nos hemos puesto en contacto con los ayuntamientos de los pueblos de alrededor (Zaldibar, Elorrio, Otxandio, Atxondo, Markina, Bolibar,...). Viendo que las quejas y proposiciones tenían su fundamento hemos decidido cambiar los artículos tercero y quinto de dichas ordenanzas.

El tercer artículo decía que por cada metro cúbico de madera o tonelada de otro material que se saque por un camino municipal se debería pagar un euro. Tras el cambio ha quedado así: “Se establece un canon o tarifa de 0,5€ por metro cúbico de madera o tonelada de otro material que se transporte, que será utilizado para el fondo de reparaciones de caminos”.

El artículo quinto decía que el solicitante de la licencia, con anterioridad a la utilización del camino, debería depositar una fianza que respondería de los daños que se pu-

dieran ocasionar en el mismo por el uso, y que sería exigida a partir de 100metros cúbicos de madera o 100 toneladas... Como el daño se puede ocasionar transite por el camino mucho material o transite poco hemos decidido lo siguiente: “El solicitante de la licencia, con anterioridad a la utilización del camino, deberá depositar una fianza que responderá de los daños que se pudieran ocasionar al mismo por el uso...”

En resumen, la fianza se saque mucha madera o poca todos/as tendrán que pagarla, y en cuanto el técnico del Ayuntamiento compruebe que no se ha ocasionado daño alguno en el camino se devuelve en su totalidad. Por cada metro cúbico de madera o tonelada de otro material que transite por un camino municipal se pagará 0,5 €, esto es, la mitad de lo que antes se pagaba.

Esta decisión se tomó en el pleno del tres de junio, ahora este cambio propuesto deberá estar expuesto en el Boletín Oficial de Vizcaya durante treinta días y si nadie presenta alegaciones podrá aplicarse al día siguiente. De esta manera esperamos que puedan empezar a funcionar a mediados de julio.



Energia berriztagarriak

UDALETXEAK ENERGIA BERRIZTAGARRIEN ALDEKO APOSTUA, HERRITARRAK PROTAGONISTA.

Udalak EEE-rekin, Euskal Energia Erakundearekin, sinatutako lankidetzaz hitzarmena dela eta udaleko instalakuntza guztien azterketak burutu dituzte. Azterketa hauetan, batetik, eraginkortasun energetikoa eta bestetik energia berriztagarriak martxan ipintzeko dauden aukerak aztertu dira. Hori dela eta, uda bitartean, Markina Leartea ikastetxean eguzki plaka fotoboltaikoak ipiniko dira, hauen bitartez energia elektrikoa lortuz.

Ekintza honetaz gain, aste berdea aprobetxatuz, orain eta gerora begira energiak izango duen garrantzirik abiatuta, Soroluzeko udalarekin batera, Mallabiko udalak interesatuta dauden landa guneeetan kokatutako etxebizitzetara eraginkortasun energetikoari eta energia berriztagarriei buruzko doako ikerketa egiteko aukera eskaintzen die. Aurten partaide kopurua 10 etxebizitzetara murriztuko da.

Proiektuak nagusiki honako hiru alor hauek izango ditu kontutan: berokuntza, errefrigerazioa eta etxeko ur beroa lortzeko sistemak. Era berean, kontutan izango dira bertan elektrizitatea ekoizteko aukerak. Hau da, ikerketa honek energia berriztagarriei dagokionez honako alorrak aztertuko ditu: eguzki energia, aire energia, biomasa eta geotermia. Eraginkortasun energetikoari dagokionez erabileraz gain, gasolioko gordailuak, isolamendua etab ikertuko ditu.

Proiektu honen helburuak, baldintzak eta lan metodologia aurkezteko asmoz uztailaren 9an kultur-etxean, arratsaldeko 6etan, bilera bat ospatuko du Udaletxeak, bertara gonbidatzen zaituztegu.

Proiektuan parte hartzeko epea Irailak 30rarte zabalik egongo da, baina partaide kopurua 10ra murrizten da. Beraz, animo eta lehen bait lehen izena eman honako telefonoan 943 820110.



APUESTA POR LAS ENERGÍAS RENOVABLES

Tras la firma del convenio de colaboración del Ayuntamiento con el EVE (Ente Vasco de Energía) se han analizado todos los edificios públicos de la localidad. Tras este análisis se han tomado en cuenta las distintas posibilidades de poner en marcha distintas fuentes de energía renovables en los mismos. Así durante este verano se colocará una serie de placas solares en la fachada de la escuela pública para la producción de energía eléctrica.

Así mismo, partiendo de la importancia que representa la consecución de energía hoy en día y sobre todo en un futuro próximo, el Ayuntamiento de Mallabia, junto al de Soroluze y en colaboración con Debegesa (Agencia para el desarrollo económico de Debarrena) ofrece la posibilidad de que de forma gratuita se realicen estudios de sostenibilidad energética y posibilidad de utilización de energías renovables en las construcciones asentadas en los distintos núcleos rurales del municipio. Este año podrán tomar parte en este proyecto diez viviendas.

El proyecto principalmente abarcará los sistemas de calefacción, refrigeración y sistemas para conseguir agua caliente. También se tendrán en cuenta los distintos sistemas para conseguir electricidad. Así, este estudio en cuanto a energías renovables analizará la posibilidad de utilización de energía solar, eólica, biomasa y geotermia. También se estudiarán aislamientos, depósitos de gasoleo,...

Para explicar los objetivos de este proyecto, las condiciones para poder tomar parte en él y el método de trabajo que se seguirá se realiza una reunión en la casa de cultura el 9 de julio a las seis de la tarde a la cual se invita a los/as vecinos/as de los núcleos rurales.

Los/as interesados/as en tomar parte en este proyecto tendrán de plazo para apuntarse hasta el 30 de septiembre recordando que se limita el número de participantes a diez viviendas en Mallabia y otras diez en Soroluze. Ánimo por tanto y que los interesados/as llamen al teléfono de Debegesa 943 820110.

Laburbilduta, hainbat barri

JUBILATUEN EGOITZA KONKURSORA

Maiatzean amaitzen jakuela konzesinoa eta, Jubilatuen Egoitza atera zan konkurso publikora. Bando baten bidez zabaldu ziran konzesinoaren baldintzak herri mailan, udaleko bulegoetan ere egon ziran kontsultatu edo interesa zuenak horretarako aukera izan egian. Herrian bi pertsonak azaldu eben interesa egoitzagaitik; eurentatik orain gestionatzen dabenak atara eben puntu gehien eta lortu dabe zaharren egoitzaren gestinoa hurrengo bost urteetarako. Iraila inguruan pintatu eta garbiketa bat emongo jako, orain gestionatzen dabenak baldintza berrietara moldatu beharko dira, eta jendeak be errespetatu beharko ditu egoitzaren atarian terraza moduan erabiltzen den eremuaren baldintzak.

BARREDORA ETA TRAKTOREA ETORRI DIRA

Barredora eta traktorea hemen dagoz, ekainaren hasieran heldu ziran. Debararreneko Mankomunitateak ekarri du gure kaleak garbitzeko eskatu zan barredora. Kale garbitzaileen biharra errazteko asmoz eta bastarrak txukunago eukitzeko asmoarekin ekarri da makina barri hau. Traktorea elurra kentzeko kutxila eta bide bazterrak garbitzeko desbrozadorearekin ekarri da. Hilabeteke atzerapenarekin etorri da traktorea baina ongi etorria izango da beti ere, ea bide bazterrak garbitzen hasten dan belarrak jan behar gaitu eta.



LANGILE BARRIAK UDALEAN

Bi bihargin berri udalean biharrean. Gure Udalaren irizpidea da ahal dan bihar gehien bertako langileekin burutzea kanpoko enpresen menpe egon barik. Asmo honekin egokitu ditugu Udalak Mallabarrenan dituen lokalak eta tresneri barria ekarri da. Gure gain hartzerakoan beste hainbat ardura, langile barriak kontratazeko aukera ere izan dogu, honeetarako bat brigadako langile barria izan da. Brigada honen kontrataziorako Mallabiko Udalean zegoen lan-poltsa erabili dogu eta ezarri zan baldintza bakarra euskalduna izatea. Baldintza honeetan lehendik egoan zerrenda publikoa erabilia, orain dagoen brigada barriak lortu eban postua. Bigarren bihargina, idazkaritzan aurkituko dogun aurpegi berria da. Hau lortzeko arazo gehiago egon ziran baldintza zorrotzagoak eskatzen ziralako, eta inguruko herrietako lan-poltsa jo behar izan dogu postua betetzeko.

MALLABIKO WEB ORRIA

Mallabiko Web orria martxan. Herria informatuta eukitzeko asmoz, Mallabiko herria kanpoan be ezaguna goa izan daiten, mallabitarrek parte zuzenagoa hartu dagien udalaren gestioan, erabaki genuen Web martxan jartzea. Maiatzaren amaieran hasi zan baina euskerazkoa osotarik ekaineko amaierarako prest egongo da. Gaztelerazkoa ea uztailean prest dagoen. Udal eta herriko barriez aparte atal bat egongo da zuek ere parte hartu dezazuen zuen galdera eta proposamenekin. Udaleko zerbitzuak, herriko historia, argazki zaharren txokoa, plenoetako berriak, agenda kulturala, jaiak, Mallabiko barriak prentsan, ongizatearen txokoa... eta beste hainbat atal eukiko ditu Web orri honek. Ea guztiontzat erabilgarria dan eta behar dan probetxua ateratzen deusogun. Nahi badozue sartu Web honetan helbidea honako hau da: www.mallabia.org.

Noticias breves



A CONCURSO EL HOGAR DE LOS JUBILADOS

En mayo terminaba la concesión del bar de los jubilados. Por medio de un bando se comunicó al pueblo de Mallabia que se sacaba a concurso y que las condiciones estaban expuestas al público en las oficinas del Ayuntamiento. Dos personas se interesaron por el bar y por puntos ha conseguido la concesión por cinco años la que antes ya lo regentaba. El próximo setiembre se le dará una mano de pintura y tras la firma del nuevo convenio se pondrán en práctica las nuevas medidas adoptadas para el funcionamiento interno del bar y de la terraza.

YA HAN LLEGADO LA BARREDORA Y EL TRACTOR

La Mancomunidad del Bajo Deba ya ha traído a Mallabia la barredora que facilitará y mejorará la limpieza de nuestras calles. Por lo que respecta al tractor con un mes de retraso pero ya ha llegado. El tractor dispone de una pala recogedora, una cuchilla para usarla como quitanieves y de un brazo desbrozador. Aunque con un mes de retraso será bienvenido pues con el periodo de lluvias que nos ha tocado esta primavera las hierbas están tomando todos los caminos municipales

NUEVOS/AS TRABAJADORES/AS EN EL AYUNTAMIENTO

Para no depender tanto de empresas externas al Ayuntamiento y con el fin de crear nuevos puestos de trabajo el Ayuntamiento ha acondicionado los locales de Mallabarrena, ha adquirido nuevo material y ha contratado un nuevo trabajador para la brigada municipal. Para esta contratación hemos utilizado la bolsa de trabajo existente en el Ayuntamiento añadiéndole la condición de que era necesario el conocimiento hablado del euskara. Veremos también una nueva cara en las oficinas del Ayuntamiento para unos meses y es la persona que se hará cargo del juzgado. Esta contratación ha sido más complicada y hemos tenido que recurrir a las bolsas de trabajo de los Ayuntamientos de alrededor.

EN MARCHA LA WEB DEL AYUNTAMIENTO

Con la finalidad de estrechar más si cabe las relaciones entre los ciudadanos y el ayuntamiento; para mejorar la información y la participación entre nosotros; y con la intención de que el pueblo Mallabia sea más conocido en el exterior se ha puesto ya en marcha la Web del Ayuntamiento. Comenzó su andadura a finales de Mayo, la página en euskera ya estará el mes de junio y se espera concluir la de español en julio. Aparte de las noticias del pueblo y del Ayuntamiento habrá un lugar reservado para que los ciudadanos puedan exponer sus sugerencias, dudas,... Los servicios que ofrece el Ayuntamiento, la historia de nuestro pueblo, el rincón de las fotos antiguas y recientes, información sobre los plenos, agenda cultural, fiestas, lo que aparece sobre Mallabia en la prensa, servicios sociales,... Se ha intentado confeccionar una página lo más completa posible además de práctica. Esperemos que sea de utilidad para todos. www.mallabia.org.

Frontoia

ZER GERTATZEN DA MALLABIKO FRONTIOIAN

Hauxe da azken boladan gehien entzuten dan galderea gure herrian: Zer gertatzen da gure frontoian azken aldi honetan hainbeste ur bertara sartzeko?

Egia da azken hilabeteetan ohikoa dan baino askoz ere euri gehiago egin dabela. Baina egia da, baita be, frontoia eraikita dagoen mendi magal horretan betidanik ur asko jaisten dala euri apur bat egiten dabenean eta hori aurreikusi behar zala frontoia egiterakoan. Frontoia mendi magaletik hurbilegi dago eta bertan egon diren lur mugimenduekin zati bat frontoiko hormaren gainera dator eta ura sartzten da probalekura. Derrigorrez eta ahalik eta arinen konpondu behar dan arazoa da hau. Aurten azken hiru hilabetean lau aldiz sartu da ura frontoira eta honek sortzen dabean kalteez aparte ez dau izten frontoia eraiki zen funzioetarako erabilia izan daiten.

Iazko udazkenean aurrekontuan diru partida bat aurreikusten zan frontoia egokitzeko bertan gimnasioa ireki ahal izatekohainbat tailer eskoletatik frontoira ekartzeko. Ura sartzten dala eta, guztia geratuta dago. Ez gimnasiorik, ez tailerrik, taberna bakarrik partiduren bat edo probak dagozanean, kantxako pintura ez dala hormara lotzen... alde guztietatik arazoak. Baina frontoia ezin ditu herriko beste hainbat proiektu atzeratu honeek ere derrigorrezkoak diralako eta aukeratzekotan lehentasuna daukatelako: hilerriko lanak, auzoetara ur munizipala eroatea, eskoletako biharrak, futbito zelaia estaltzea...

Frontoian ezer egin baino lehen mendiko urak kanalizatu egin beharko dira, horretan gabilta azken hilabeteetan eta lanik astunenak eta gogorrenak orain hasiko dira horma bat eraikiaz probalekuaren atzekaldean eta goiko landako ur guztiak kanalizatuz. Ea horrela arazoa konpontzen den.

Uda honetan aurreikusten da karrajoa estaltzea eta hileria bi esarleku dituen grada batzuk montatzea probalekuan. Andra Marietarako dena prest egon beharko leuke. Horrela, irailean beste zerbitzu batzuk ematen ere hasi geinkez frontoian eta ea orduan mallabitarrok hasten garan gehiago disfrutatzen gure frontoi barriaz.

¿QUE OCURRE CON EL FRONTÓN MUNICIPAL?

Una de las preguntas que más se repite últimamente entre las/os vecinas/os de mallabia es esta: ¿Qué ocurre con el frontón de Mallabia? ¿Por qué entra tanta agua?

Es cierto que esta primavera ha llovido bastante más de lo que es normal. También sabemos que en esa ladera trasera del frontón se forma de inmediato una corriente de agua en cuanto llueve un poco fuerte, y todo esto debería preverse antes de construir un frontón en ese lugar. El frontón está pegado a la ladera, hay pequeños movimientos de tierra que afectan directamente a una de las paredes traseras del probadero y esto unido a que los desagües no han sido capaces de

canalizar toda el agua que bajaba de la ladera por distintos motivos, ha hecho que haya entrado hasta ahora en cuatro ocasiones agua al frontón. Así, además de los daños que el agua causa, esta situación hace que el frontón no se pueda utilizar al cien por cien para las funciones que se destinó.


A finales de otoño al aprobarse los presupuestos de este año se preveía una partida para acondicionamiento del frontón y para que en él fuera posible que se desarrollen otras actividades. No hay gimnasio, ni talleres, el bar sólo se abra

cuando hay partidos o pruebas, la pintura de la cancha sigue saltándose... problemas por todas partes.

Tenemos claro que no podemos atrasar otros proyectos por el frontón porque son urgentes y prioritarios. Los trabajos del cementerio, llevar agua municipal a los barrios, las obras de las escuelas, el campo de futbito,...

Antes de hacer algo en el interior del frontón hay que canalizar las aguas que bajan de la ladera y en ello estamos, estos trabajos han hecho que se atrasen otros proyectos y no que se aparten. Los trabajos de canalización más importantes son los que se llevarán acabo ahora y consisten en la construcción de un muro tras el probadero y la realización de un dream francés que traslade las aguas de esa parte de la ladera a otro lugar que no sea el probadero.

Durante el verano se procederá a la cubrición del carrajo y se colocarán unas gradas con dos filas de bancos corridos en el lateral del mismo. Para las fiestas de Andra Maris deberían estar terminados los trabajos. A ver si de esta manera en octubre podemos empezar a ofrecer otros servicios en el frontón y podemos disfrutar más todos de él.



MALLABIKO
UDALA